

Abendua
Diciembre
2017



BIM

Antsoain Ansoáin



Eguberri on!
¡Feliz
Navidad!




Argitaratzailea: Antsoaingo udala. **Erredakzio Kontseilua:** Maria Olaiz, Arantxa Gamba, Marco Alvarez, Patxi Leuza, M^ª Aranzazu Arias. **Erredatzailea:** Imagen Gráfica. **Ale kopurua:** 4700 ale. **Doako banaketa.** **Edita:** Ayuntamiento de Ansoain. **Consejo de Redacción:** María Olaiz, Arantxa Gamba, Marco Alvarez, Patxi Leuza, M^ª Aranzazu Arias. **Realiza:** Imagen Gráfica. **Tirada:** 4700 ejemplares. **Difusión gratuita.**

(Hurrengo aldizkaria: 2018ko otsaila – Próximo BIM: febrero 2018)

ABIAN DA INBERTSIOEN 2. FASEA


Udalak aurrera segitzen du 2017rako aurreikusi zituen inbertsioen 2. faseko exekuzioarekin. Udaldian egindako lanen ondoren, orain, honako hauei iritsi zaie txanda:

ERABILERA SOZIALA EMATEN ZAION ATARRABIA IBILBIDEKO UDALAREN ETXEBIZITZA BATEN ERREFORMA. Urbide Iturgintza ari da lanak egiten, eta 48.997,36 euroko prezioan esleitu zen obra.



REFORMA DE VIVIENDA MUNICIPAL EN AVDA. VILLAVA para destinarla a uso social. Está siendo realizada por la empresa Urbide Iturgintza con un coste final de adjudicación de 48.997,36 euros.

LERIN KALEA ETA JURRAMENDI ZEHARBIDEAREN ARTEKO PASABIDEA. - Obra hasia da jada, eta Construcciones Apezetxea enpresak lortu zuen esleipena 71.061 euroan.



NUEVO PASADIZO ENTRE CALLE LERÍN Y TRAVESÍA MONTEJURRA. La obra, que ya ha comenzado, ha sido adjudicada a Construcciones Apezetxea por un valor de 71.061 euros.

ANTZOKIKO ETA UDALEKO HOTZAREN SISTEMA ALDATZEA. 2015 urtetik hondatuta dago hozteko makina, Veolia enpresa ari da aldatzen, eta 91.117,57 euroko eskaintza ekonomikoa egin du.



SUSTITUCIÓN DEL SISTEMA DE FRÍO DEL TEATRO Y CASA CONSISTORIAL. Averiada la máquina enfriadora desde 2015, su sustitución está siendo realizada por la empresa Veolia, cuya oferta económica ha sido de 91.117,57 euros.

HAUR ESKOLAKO UR BERO SANITARIOAREN SISTEMA BERRITZEKO LANAK.

Ezkaba Ikastetxe Publikoaren patioko aldageletan egindako obren antzekoa da hau. Bukatuta dago jada, eta ur bero sanitarioaren sistema modernizatzean datza, sistemak ur beroa sortzen duenean, eraginkortasuna handitzeko eta gehiago aurrezteko.



REFORMA DEL SISTEMA ACS (AGUA CORRIENTE SANITARIA) DE LA ESCUELA INFANTIL.

Obra similar a la realizada en los vestuarios del patio escolar del Colegio Público Ezkaba, ya está finalizada y ha consistido en la modernización del sistema de ACS en lo que se refiere a la producción de agua caliente desde el punto de vista de la eficiencia y el ahorro. Realizado por la empresa

Urbide con un coste de 18.965,68 euros.

ANTSOAINERA SARTZEKO BIDEETAN SEINALE BERRIAK.

Urriko Osoko Bilkuran onartu zen 10.100 euroko aurrekontu aldaketa. Horrekin, gure herrira sartzeko bideetan kartelak jarri ahal izanen dira, ele bietan, gure herriaren izenarekin eta armariarekin.



NUEVA SEÑALIZACIÓN DE LOS ACCESOS A ANSOÁIN.

En el pleno de octubre se aprobó la modificación presupuestaria por valor de 10.100 euros que va a posibilitar señalar los accesos a nuestro pueblo con carteles indicativos bilingües que contienen el nombre de nuestra localidad y su escudo.

www.ansoain.es

Sare sozialetan jarraitu



www.ansoain.es

Síguenos en las redes sociales

JOKIN CAMPION, KULTURA ETA EKINTZA SOZIOKOMUNITARIOKO TEKNIKARI BERRIA

Aurreko udal aldizkarian iragarri bezala, Jesús Arraiza hasi zen Idakirolak enpresa publikoan kudeatzaile lanetan. Orain, Jokin Campion teknikari berriak egin du bat Udalaren zerbitzuekin, kultura eta ekintza soziokomunitarioaren arloan aritzeko. Postu horretarako langilea kontratatzeko ireki zen prozesu publikoaren bidez eskuratu zuen postua. Horrela, hemendik aurrera, ez du funtzio bikoitza izanen orain arte kirol eta kultur arloaren teknikaritzako zereginak garatzen zituen Juan Carlos Martínez teknikariak, soilik kirol arloaren ardurua izanen baitu aurrerantzean. Erabaki hau Udalaren egitura modernizatzeko neurrien testuinguruan jarri behar da, eta helburu du baliabide gehiagorekin hornitzea garrantzi berezia duten bi esparru: soziokulturala eta kirolarena. Zorte ona opa diogu Jokini bere egiteko berrian.




JOKIN CAMPIÓN, NUEVO TÉCNICO DE CULTURA Y ACCIÓN SOCIOCOMUNITARIA

A la incorporación de Jesús Arraiza como gerente de la nueva empresa pública Idakirolak, de la que informábamos en el anterior BIM, sumamos ahora la de Jokin Campión como nuevo técnico de cultura y acción sociocomunitaria, puesto al que ha accedido tras el proceso público de selección abierto a tal efecto. De esta manera, el hasta ahora técnico de cultura y deporte, Juan Carlos Martínez, dejará de tener desdobladas sus funciones, pasando a desarrollar su labor solo en el área de deportes. Esta decisión se enmarca dentro del proceso de modernización de su estructura que el ayuntamiento viene desarrollando, con la que se pretende dotar de más recursos a dos áreas de tan especial transcendencia como son la sociocultural y la deportiva. Deseamos a Jokin la mejor de las suertes en su nuevo cometido.

BERRIZ ARGITARATU DUTE “TOPONIMIA NAVARRA VII. Cuenca de Pamplona. Cendea de Antsoain (José María Jimeno Jurio)” liburua

Antsoaingo, Berriobeitiko eta Berriozarko udalen babesarekin berrargitaratu da Pamiela argitaletxearen “Toponimia navarra VII. Cuenca de Pamplona. Cendea de Antsoain” liburua. 1992 editatu zen, egilea hil baino hamar urte lehenago, hain zuzen. Artaxoan, 1927. urtean jaio zen idazlea: José María Jimeno Jurio historialari eta etnografo nafarra. Hil ondoren, 2015. urtean, Nafarroako Urrezko Domina jaso zuen egileak, hainbat gairen inguruan egindako lan oparoarengatik: Nafarroako historia, ohiturak, hizkuntzak, tradizioak eta toponimirari buruzko azterlanak, erro euskalduneko Nafarroako toponimiari buruzkoak, bereziki.

Udal bakoitzak 500 euroko ekarpena egin du, eta 34na liburu jaso dituzte. 29,00 euroren truke eskuratu daitezke liburu dendetan.



REEDICIÓN DEL LIBRO “TOPONIMIA NAVARRA VII. Cuenca de Pamplona. Cendea de Antsoain” (José María Jimeno Jurio)

Los ayuntamientos de Ansoáin, Berrioplano y Berriozar han patrocinado la reedición del libro “TOPONIMIA NAVARRA.VII. Cuenca de Pamplona. Cendea de Antsoain” (Editorial Pamiela), que fue editado en el año 1992, justo una década antes de la muerte de su autor, el historiador y etnógrafo navarro José María Jimeno Jurio, nacido en Artaxona el año 1.927;

fue galardonado a título póstumo con la Medalla de Oro de Navarra en 2.015 por su prolífera obra sobre la historia de Navarra, costumbres, lenguas, tradiciones y estudios toponímicos, en especial relacionados con la toponimia de raíz euskérica en Navarra.

Cada uno de los tres ayuntamientos ha colaborado con la cantidad de 500,00 €, recibiendo en contraprestación 34 libros.

Los libros se pueden adquirir en librerías al precio de 29,00€

ANTSOAINGO UDAL MUSIKA ESKOLA

ANTSOAINGO MUSIKA ESKOLA EZAGUTU NAHI DUZU? Anima zaitetz musika hastapeneko ate irekien jardunaldira edo hiruhileko bukaerako kontzertuetara! Antsoaingo Antzokian zain izanen gaituzue!

ABENDUAK 13, ASTEAZKENA, 16:00etatik 19:30era, MUSIKA HASTAPENeko ate irekien jardunaldia.

ABENDUAK 18, ASTELEHENA, 18:00etan, haurren ABESBATZAREN kontzertua; eta 19:30ean, TALDEEN kontzertua (sarrerak antzokiko atean har daitezke, kontzertuak hasi baino ordu erdi lehenago; bat pertsona bakoitzeko, etorrera ordenan eta lekua bete arte).

URTARRILAREN 5EKO EEMEN DESFILEA, Musika eskolako bandaren kolaborazioarekin.



ESCUELA DE MÚSICA MUNICIPAL DE ANSOÁIN

¿QUIERES CONOCER LA ESCUELA DE MÚSICA DE ANSOÁIN? ¡Anímate a venir a la jornada de puertas abiertas de iniciación musical o a los conciertos programados para el fin del trimestre! Os esperamos en el teatro de Ansoáin:

MIÉRCOLES 13 DE DICIEMBRE, de 16:00 a 19:30 h, jornada de puertas abiertas de INICIACIÓN MUSICAL.

LUNES 18 DE DICIEMBRE, a las 18:00 h, concierto del CORO infantil; y a las 19:30 concierto de AGRUPACIONES (se podrán recoger entradas en la puerta del teatro, media hora antes de cada concierto; una por persona, en orden de llegada hasta completar aforo).

CABALGATA DE RRMM 5 DE ENERO, con colaboración de la banda de la escuela de música.



HERRITARRENTZAKO INFORMAZIOA

Ohiko Osoko Bilkurak hilabete bakoitzeko azken asteazkenean egiten dira, 18:00etan, Udaleko osoko bilkuren aretoan.

INFORMACIÓN A LA CIUDADANÍA

Las sesiones del Pleno Ordinario se celebran los últimos miércoles de mes, a las 18:00 horas, en el salón de plenos del Ayuntamiento.

ANTSOAINGO AIRE ZABALEKO II. HAUR PINTURA LEHIAKETA “ARTEarekin janzten da Antsoain”

Lehiaketa honen helburu nagusia Antsoaingo artista txikiek kaleak hartzea izan da, tokiak beraien erara interpretatzeko. Parte-hartzeko, kalean ibili behar zen, ikertu, leku berriak aurkitzen saiatu, eta, horren ondoren, artea ostertz berri batetik diseinatu eta bizi behar zen.

- 1. SARIA:** Nuria Álvarez Beorleguik eskuratu du; 10 urte ditu, Antsoainen bizi da, eta “El Mar al amanecer” lana aurkeztu zuen.
- 2. SARIA:** Oihan Azcona Sadak jaso du; 10 urte dauzka, eta “Lo urbano en natura” izenburuko lana egin zuen.
- 3. SARIA:** Aitana Pulidok lortu du, 10 urte ditu, eta bere lanak “Parque Serpiente” izenburua dauka.



II CONCURSO DE PINTURA INFANTIL AL AIRE LIBRE DE ANSOÁIN “Ansoáin se viste de ARTE”

El principal objetivo de este concurso ha sido que artistas menudos tomaran las calles de Ansoáin para reinterpretarla libremente. Había que callejear, investigar, intentar descubrir espacios y a partir de ahí, diseñar y vivir el arte desde nuevos horizontes.

1ER PREMIO: Nuria Álvarez Beorlegui, de 10 años, vecina de Ansoáin que presentó el trabajo titulado “El Mar al amanecer”

2º PREMIO: Oihan Azcona Sada, de 10 años, que presentó el trabajo titulado “Lo urbano en natura”

3ER PREMIO: Aitana Pulido, de 10 años, que presentó el trabajo titulado “Parque Serpiente”



DANTZAN IKASI NAHI AL DUZU? 18 URTE BAINO GEHIAGO AL DUZU? ¿TIENES MÁS DE 18 AÑOS? ¿QUIERES APRENDER A BAILAR?

¿Has observado que cada vez hay más gente, y no solo dantzaris, bailando músicas tradicionales? Ahora tienes una ocasión perfecta para aprender o practicar danzas de nuestro patrimonio cultural. ¡Anímate y ven a bailar con nosotr@s!

Ohartu zara gero eta jende gehiago euskal dantzak dantzatzen dabilela? Ez duzu zertan dantzaria izan behar, orain duzu aukera dantzak ikasi eta praktikatzeko. Anima zaitetz eta etorri gurekin dantza egitera!

Grupo de Danzas EGUZKI EKER Dantza Taldea: nagusia56@gmail.com • Tf. 658 509 946

TXOKO GORRI GUNE SOZIOKOMUNITARIO BERRIA

Azaroaren 11n ospatu genuen zentro soziokomunitarioaren mustutze ekitaldia. Euskal Herria plazako osasun etxe zaharreen dago, eta Antsoaingo herritar guztiendako autogestio, elkarbizitza eta partehartze proiektu bat bultzatzeko helburuarekin jaiotzen da. Herriko bizitza sozialari eta kulturalari ekarpena egin nahi dion proiektu honetan, toki bera erabiltzen duten 5 talde dabilta oraintxe bertan, bakoitza bere proiektuarekin: Antsoaingo Kultur Koordinadora, Izan Taldea, Berrikusi, Antsoaingo Gazte Mugimendua eta Antsoaingo Herria. Talde horiek, aldi berean, Txoko Gorri proiektuan bat egin eta lan egiten dute, eta talde zein pertsona gehiagorentzat irekia dagoen toki honi bizitza emanen diote.

NUEVO CENTRO SOCIAL COMUNITARIO, TXOKO GORRI

El 11 de noviembre se celebró la inauguración del nuevo centro social comunitario que se ubica en el antiguo centro de salud situado en la plaza Euskal Herria, un espacio que nace con el objetivo de impulsar un proyecto de autogestión colectiva, convivencia y participación, abierto a toda la ciudadanía de Ansoáin. En este proyecto, que pretende contribuir a enriquecer

la vida social y cultural de nuestro pueblo, participan a día de hoy 5 colectivos que comparten un mismo espacio, cada uno de ellos con su propio proyecto. Se trata de la Coordinadora Cultural de Ansoáin, Izan Taldea, Berrikusi, Antsoaingo Gazte Mugimendua y Antsoaingo Herria. A su vez, todos ellos se integran y trabajan en el proyecto Txoko Gorri que dará vida a este espacio siempre abierto a que más colectivos y personas puedan formar parte de él.



METODOLOGIA KOOPERATIBOA ETA INKLUSIOA EZKABA IKASTETXEAN

Eguneroko bizitzan, eskolan ez ezik, lanean ere elkarlana ezinbestekoa dugu; beraz, nola ez, kooperatibismoa eta inklusioa eskolan? Nola ez, kooperatibismoa herrian eta kalean? Argi daukagu Antsoaingo Ezkaba eskolako irakasle eta ikasleek: elkarrekin lana egitea da Antsoain berri bat eraikitzeko bide egokiena.

Horretaz aparte, gure hizkuntza sustatzeko eta erabilera bermatzeko, oso aukera onak eskaintzen ditu ikaskuntza kooperatiboak, izan ere, elkarrizketa behar da kooperazioarako; eta elkarrizketaren bidez, ahozko komunikazioa lantzen den bitartean, ikasleek hizkuntza gaitasuna hobetzen dute; ez ikasteko orduan bakarrik, jolas egiterakoan ere bai. Horregatik guztiagatik, inklusioa eta kooperatibismoa gure eguneroko lanean xertatzea dugu helburu.



METODOLOGÍA COOPERATIVA E INCLUSIVA EN EL COLEGIO EZKABA

Además de en la escuela, el trabajo en equipo es importante en nuestra vida diaria, en nuestro trabajo... Por lo tanto, ¿cómo no incluir el cooperativismo y la inclusión en la escuela? ¿Cómo no cooperar en sociedad? En Ezkaba lo tenemos claro. Trabajar en equipo es la mejor forma de construir un nuevo Ansoáin.

Además de esto, el trabajo colaborativo nos ofrece una oportunidad inmejorable para fomentar y potenciar el uso del euskera. Cooperar supone dialogar, y mediante el uso de la palabra mejoramos nuestra comunicación oral, no solo a la hora de aprender, sino también a la hora de jugar. Por todo esto, es nuestro objetivo trabajar en la inclusión y el cooperativismo.



21 TOKIKO AGENDA / BERDINTASUN ZERBITZUA

Inoiz aipatu izan dugu baratze ekologikoen gaia. Udalak abiatu zituen, Auzo Konpostajearen Arloarekin batera, eta, besteak beste, bertan parte hartzen duten emakumeak ahalduz balio dute. Gaur, hain zuzen, emakume horietako bati buruz hitz egin nahi dizuegu: Sagrario Ayesa Diandari buruz; "Charo" gu guztiontzat. Ezagutu genuenontzat, eredugarri izan zen, borrokarako eta egoerak gainditzeko zuen gaitasunagatik, eta oraindik ere eredu izaten jarraitzen du. Betiko eraman zuten esklerosi anizkoitzaren arazoek, baina bere gaixotasuna eta aulkia ez ziren oztopo izan hiriko baratzeak lantzeko proiektuaren aitzindarietako bat izateko. Ez zuen soilik lurra landu, ordea. "Landu"ren esanahiak tratua zein adiskidetasuna mantetzeko eta estutzeko egiten den bidea ere biltzen du bere baitan; eta, han, baratzeetan, ustez tomateak, urazak edo tipulak lantzen zituen bitartean, beste hazi bat ereiten zuen: adiskidetasuna, elkartasuna, gainditzeko gaitasuna, jarrera barneratzailea, erabakitze ahalmena, indarra eta, batez ere, eredu izatearen landarea dakarren hazia jartzen aritzen zen. Joan den irailean, merezitako omenaldia egin nahi izan genion berarekin batera proiektuaren ilusioa bizi izan genuenok: bere familia, ADEMNAko adiskideak, Antsoaingo Udaleko eta Iruñerriko Mankomunitateko ordezkariak, eta, jakina, baratzeko lankideak. Ordu ezker, arrosoz bat ageri da berarekin egoten ginen toki hartan. Arrosoz horrek Charo ekartzen digu gogora, baina, gainera, arantzen artean itxaropena, adiskidetasuna eta bizitza loratzen direla gogorarazten digu. Goian bego Charo.

Gabonak gerturatzen ari dira, eta, beste behin ere, erosketa arduratsuek egitera animatu nahi zaituztegu. Antsoainen erosiz gero, igorpenak murrizten dituzu eta herriari bizitasuna eta bizitza soziala ematen dioten saltokien alde egiten duzu.



AGENDA LOCAL 21 / SERVICIO DE IGUALDAD

Ya os hemos hablado alguna vez de la huerta ecológica

que puso en marcha el Ayuntamiento junto al Área de Compostaje Comunitario y que sirve para el empoderamiento de las mujeres que allí participan. Pues bien, hoy os queremos hablar de una de esas mujeres: Sagrario Ayesa Dianda; "Charo" para todo el mundo. Ella fue y sigue siendo un ejemplo de lucha y superación para todas las personas que la conocimos. Las complicaciones de su esclerosis múltiple se la llevaron para siempre, pero ni su enfermedad, ni su silla de ruedas le impidieron participar y ser una de las pioneras que llevaron adelante este proyecto de cultivo en la ciudad. "Cultivar", hablando del conocimiento, del trato o de la amistad, significa poner todos los medios necesarios para mantenerlos y estrecharlos. Allí, cuando ella creía plantar tomates, lechugas o cebollas, realmente estaba sembrando amistad, solidaridad, superación, inclusión, decisión, fuerza y sobre todo, ejemplo. El pasado mes de septiembre quisimos hacerle un merecido homenaje con la participación de todas aquellas personas que compartimos con ella la ilusión del proyecto: su familia, compañeros y compañeras de ADEMNA, representantes del Ayuntamiento de Ansoáin y de la Mancomunidad de la Comarca de Pamplona y por supuesto, sus compañeras de la huerta. Desde ese día luce un rosal en ese espacio que compartimos con ella y que no sólo nos recuerda siempre a Charo, sino que también la esperanza, la amistad y la vida pueden florecer entre las espigas. Descansa en paz Charo.

Se acercan las navidades y un año más os queremos animar a hacer "compras responsables".

Comprando en Ansoáin reduces las emisiones y favoreces un comercio local que enriquece el dinamismo y la vida social de tu pueblo.



AL21

HIZTEGITXOEN LEHIAKETA, “EUSKARA MERKATARITZAN” PROGRAMAKO SALTOKIETAN

Antsoaino Udalak, Iruñerriko beste 10 udalek eta Garesek antolatu dute lehiaketa hau. Koloretako 25.000 hiztegitxo banatuko dituzte merkataritzako programan parte hartzen duten 301 saltokitan. Arrosak, urdinak, berdeak, laranja eta horiak izanen dira hiztegitxo horiek, eta merkatariek bezeroen artean banatuko dituzte urtarilaren 31 arte. Bezeroek, berriz, lehiaketan parte hartzeko, kolore bakoitzeko hiztegitxo bana bildu behar dute; denak eskuratzean, bostei argazki bat atera behar diete eta whatsapp bidez bidalibehar dute 692 730 246 zenbakira.

Gero, otsailaren 5ean, argazki guztien arteko zozketa egingen da, eta programako saltokietan erosketak egiteko 100 euroko 3 sari eskuratuko dituzte 3 irabazlek. Antolakuntzak bidaltzaileen telefono zenbakiak gordeko ditu argazkiekin batera, saria lortuz gero, harremanetan jarri ahal izateko. Edonork parte har dezake, baina telefono bakoitzetik argazki bakarra bidal daiteke. Animatu eta eskuratu zure hiztegitxoak herriko saltokietan!



CONCURSO DE MINI DICCIONARIOS, EN LOS ESTABLECIMIENTOS DEL PROGRAMA EUSKERA EN EL COMERCIO

Lo organizan el Ayuntamiento de Ansoáin, 10 más de la comarca y Puente La Reina. Distribuirán 25.000 pequeños diccionarios de colores en 301 establecimientos que participan en el programa de comercio. Serán rosas, azules, verdes, naranjas y amarillos. Los y las comerciantes los entregarán hasta el día 31 de enero, y, la clientela, por su parte, deberá conseguir un diccionario de cada color, para poder participar en el concurso. Cuando hayan reunido todos los colores, deberán sacarles una foto a los 5 y enviarla mediante whatsapp al 692 730 246.

Después, el 5 de febrero, se sortearán 3 premios de 100 euros cada uno para utilizarlos en los establecimientos del programa. La organización del concurso guardará tanto la fotografía como el número de teléfono de la persona que la envía, para que, en caso de que resulte premiada, se puedan poner en contacto. Puede participar quien quiera, pero solo puede enviarse una única foto de cada teléfono. ¡Anímate y consigue tus diccionarios en los establecimientos de Ansoáin!


ANTZERKI AMATEURRA - TEATRO AMATEUR

LARUNBATA 2 SÁBADO

Antsoaingo Antzokia · 19:00etan (90 minutu)
Teatro Ansoáin · 19:00 h. (90 minutos)

KUMEN TEATRO (ASTURIAS)

Gazte eta helduentzat · Juvenil - Adulto



LA COMEDIA DE MILES GLORIOSUS

MILES GLORIOSUS-ek (205 K. a.) Beste gizonezkoekin ezkonduko emakumeak konkistatzeko obsesioa duen militar baten abenturak kontatzen dizkigu. Pirgopolinices erabat arduratua dago bere eginkizun militarrekin, eta izaera andreko erikorra daukan pertsona da. Izaera horrek bere inguruan dituen guztien iseka eragiten du, Palestrión morroiak maisuki bideratuta.

Morroi trebe honen azpijokoak eta Milesek duen emakumezkoetarako joerak komedia honen ildo nagusia osatzen dute; eta obraren bukaerak erabateko lotura dauka antzezlanaren garapenarekin: Miles bere "graduazio maitea" galtzear dago...

ALDEZ AURREKO
SALMENTA / VENTA
ANTICIPADA 4,00€
SALMENTA
LEIHATILAN /
VENTA EN
TAQUILLA 5,50€

LA COMEDIA DE MILES GLORIOSUS

MILES GLORIOSUS (205 a. C.) narra las aventuras de un militar que está obsesionado por conquistar... mujeres casadas con otros hombres. Pirgopolinices, escrupuloso con sus obligaciones militares, alberga dentro de sí una personalidad tan donjuanesca y enfermiza que se convierte en el centro de la burla de todos cuantos le rodean, hábilmente guiados, eso sí, por el esclavo Palestrión.

Las trampas que le tiende este ingenioso esclavo y la debilidad que padece el Miles por el sexo femenino son los hilos conductores de una comedia cuyo final concuerda con su desarrollo: el Miles está a punto de perder su... ¡¡"más querida" graduación!!

MUSIKA BANDA - BANDA DE MÚSICA

IGANDEA 3 DOMINGO

Antsoaingo Antzokia · 13:00etan (60 minutu)
Teatro Ansoáin · 13:00 h. (60 minutos)

BANDA DE MÚSICA CASA DE VALENCIA (NAFARROA - NAVARRA) Jende guztiarentzat - Todos los públicos



NAFARROAREN EGUNA

50 musikarik osatzen dute Valentziako Erkidegoaren Nafarroako Etxeak daukan musika banda. 2001ean elkarteko bazkide ziren musikariek sortu zuten banda, eta aipamen berezia merezi du Javier Inglések, lehendabiziko zuzendariak, egindako ekarpenak. Urtean zehar hainbat kontzertu eskaintzen ditu, Iruñeko Udalaren Kultura Sailarekin eta Nafarroako hainbat erakunderekin elkarlanean. Aipagarria da Nafarroako Banden lehenengo lehiaketan lortutako lehenengo saria. Zuzendaria: Juan José Torres Tornero

DOAKO SARRERA
ENTRADA LIBRE

DIA DE NAVARRA

La Banda de Música de Casa de la Comunidad Valenciana en Navarra cuenta en la actualidad con alrededor de 50 músicos. Fundada en el 2001 de la mano de los músicos valencianos socios de la Casa, con la especial aportación de su primer director Javier Inglés, la banda realiza a lo largo del año diversos conciertos en colaboración con el Área de Cultura del Ayuntamiento de Pamplona, otras instituciones navarras y otras entidades. Entre los mayores distintivos de la banda, destaca el Primer Premio del Primer Certamen de Bandas de Navarra. Director: Juan José Torres Tornero

HILEAN BEHINGO IRTEERA - SALIDA MENSUAL

LARUNBATA 9 SÁBADO

Lapurbide plaza · 12:00etan
Plaza Lapurbide · 12:00 h.

Familiarentzat - Familiar



ANTSOAINEN KANTUZ

Antsoainen Kantuz jende bila dabil. Hori dela eta, taldea zabalik dago hartan parte hartu nahi duen jende guztiarentzat. Entseguak ostegunetan egiten dira, 19:30ean, Antsoaingo Gizarte Etxean.

ANTSOAINEN KANTUZ

Antsoainen Kantuz desea ampliar el grupo. Por eso motivo invita a toda persona que quiera participar con el grupo. Los ensayos son los jueves a las 19:30 en el Centro Cívico de Ansoáin.

SUBVENCIONA/DIRUEMAILEA:



PROGRAMA ARTE Y CULTURA 2017
2017ko ARTE ETA KULTURA PROGRAMAZIOA

MAGIA - MAGIA

IGANDEA **10** DOMINGO

Antsoaingo Antzokia · 18:00etan (90 minutu)
Teatro Ansoáin · 18:00 h. (90 minutos)

MAGO ÓLIVER & EVA (BILBO) - BILBAO)

Familientzat - Familiar



VALORES MÁGICOS

“Valores Mágicos” ikuskizunean, Oliver Magoak eta Evak, haur laguntzaileekin batera, magia betetako ikuskizuna eskainiko digute: bizia berreskuratzen duten objektuak eta marrazkiak, ikusleengandik ateratako magia, errezeta magiko sinesgaitzak eta efektu berezi txundigarriak. Hau guztia umore, emozio, erritmo handi eta antzerki izaeraz bete.

VALORES MÁGICOS

“Valores Mágicos” es un espectáculo donde Óliver y Eva, y varios niños colaboradores, nos deleitarán con increíbles números de magia: objetos y dibujos que recobran vida, magia que sale de los propios espectadores, recetas mágicas inverosímiles e impactantes efectos especiales. Todo ello con humor, emoción, mucho ritmo y teatralidad.

ALDEZ AURREKO SALMENTA / VENTA ANTICIPADA **4,50€**
SALMENTA LEIHATILAN / VENTA EN TAQUILLA **5,50€**

SOLASALDIA - CHARLA

OSTEGUNA **14** JUEVES

Gizartetxea · 17:00etan
Centro cívico · 17:00 h.

SERVICIO SOCIAL / ASOCIACIÓN ARALAR

Jende guztiarentzat - Todos los públicos



EL JUEGO PATOLÓGICO.

Aprendiendo para prevenir

Gaur egun, joko gizartera ekartzen duen mugimenduaren fenomeno soziala ezagutzen ari gara, eta, pertsona askoren bizitzan, egunerokoan errotzen ari da jokoak. Hitzaldi honekin, jokoak eragiten duen menpekotasunaren inguruko informazioa helarazi nahi dugu eta jokoak berak dakarren arriskuaz jabetzeko eta aurreikusteko gakoak konpartitu nahi ditugu.

EL JUEGO PATOLÓGICO

Aprendiendo para prevenir

En la actualidad, estamos asistiendo a un fenómeno social de movimiento hacia los juegos de azar, en el que éstos se están convirtiendo en algo habitual en la vida de muchas personas. El objetivo de esta charla es sensibilizar e informar sobre qué es la adicción a los juegos de azar, el riesgo que supone y qué podemos hacer para prevenirla.

DOAKO SARRERA
ENTRADA LIBRE

ANTZERKIA - TEATRO

OSTIRALA **15** VIERNES

Antsoaingo Antzokia · 21:00etan (55 minutu)
Teatro Ansoáin · 21:00 h. (55 minutos)

SEGÚNSURJA (IRUÑA - PAMPLONA)

Gazte eta helduentzat · Juvenil - Adulto



MUERTA POR MATAR AL PUTO LIMAKO

Skalástika, eroritako aingerua, esnatu egiten da azken biktimekin erabat asetuta eta denbora luzez hibernatzen egon ondoren. Sakalástikak, Paradisutik erbestera izan ondoren, umorez, bizidunen munduan bizitutako abenturak kontatzen dizkigu, zeinean, gizakiak janez elikatu behar izan duen. Biktimekin izandako adiskidetasunak, gorroto h... Vampireta abenturak eta bere b... gaitu, baita bere bakardadearen, atsedean hartzeko, errespetua lortzeko eta onartua izateko gogoaren konplize ere, zeru puta hortan, infernua edota gizakien munduan bada ere.

MUERTA POR MATAR AL PUTO LIMAKO

Skalástika, un Ángel Caído, despierta después de haber estado hibernando un largo tiempo tras haberse saciado con sus últimas víctimas. Skalástika nos adentrará, en clave de humor, en un viaje de aventuras y desventuras vividas a partir de su caída al mundo humano. Skalástika, un vampiro que vive en la oscuridad, nos contará sus aventuras y desventuras vividas a partir de su caída al mundo humano. Skalástika, un vampiro que vive en la oscuridad, nos contará sus aventuras y desventuras vividas a partir de su caída al mundo humano. Skalástika, un vampiro que vive en la oscuridad, nos contará sus aventuras y desventuras vividas a partir de su caída al mundo humano.

SUSPENDIDO - BERTAN BEHERA

ALDEZ AURREKO
SALMENTA / VENTA
ANTICIPADA **8,00€**
SALMENTA
LEIHATILAN /
VENTA EN
TAQUILLA **10,00€**


MUSIKA - MÚSICA

LARUNBATA 16 SÁBADO

Teatro Ansoáin · 19:00 h. (90 minutos)
Antsoingo Antzokia · 19:00etan (90 minutu)

ROBERTO URRUTIA (NAFARROA - NAVARRA)

Jende guztiarentzat - Todos los públicos

**USTEDES MANDAN**

"Ustedes mandan" 9. diskoaren aurkezpen ofiziala. Roberto Urrutiak inoiz egindako ikuskizunik handiena. Sorpresaz betea, artista askorekin oholza gainean, kantuan, musika tresnak joz edota dantzan, mariatxi osoaren laguntzarekin.

Nafarroari egindako keinuak ere ez dira faltako, jotak eta euskara baliatuz, baita eguberriari ere. Dena den MEXICO izanen da ikuskizunaren ardatz nagusia.

USTEDES MANDAN

Presentación oficial del 9º CD, "Ustedes Mandan". El mayor de los espectáculos jamás realizado por Roberto Urrutia. Lleno de sorpresas, con muchísimos artistas en el escenario, bien al canto, al instrumento, como al baile. Gozaremos de tener a todo su mariachi al completo y en vivo.

Por supuesto no podrá faltar, el guiño a nuestra tierra Navarra en jota y en euskera y nuestro guiño a la Navidad... pero en este evento MÉXICO va a estar más presente que nunca.

ALDEZ AURREKO SALMENTA / VENTA ANTICIPADA 5,00€
SALMENTA LEIHATILAN / VENTA EN TAQUILLA 6,00€



IGANDEA 17 DOMINGO

Parque Zelaia · 16:00etan
Zelaia Parkean · 16:00 h.**MARI DOMINGIRI GUTUNAK**

Abenduaren 17an, Olentzerorendako gutunak Mari Domingiri eramanen dizkiogu, 16:00etan. Eta 17:30ean, txokolate-jatea Zelaia Parkean.

CARTAS A MARI DOMINGI

El 17 de diciembre, llevaremos las cartas del Olentzero a Mari Domingi, a las 16,00 horas y a las 17,30 horas chocolatada, en Parque Zelaia.



Aurten, Antsoingo Errege Kabalkadan ari garenek laguntza eskatu nahi dizuegu herriko auzokide guztiei Errege Kabalkada prestatzeko. Zulagailurik erabiltzen badakizu, edo josten, edo margotzen... pozik hartuko zaitugu!!!! Askí da zure izen-abizenak eta telefono zenbakia gure e-postara bidaltzea: cabalgataansoain@gmail.com.

ANIMA ZAITEZ, ZAIN GAUZKAZU. **Eskerrik asko**

Este año desde la asociación de la Cabalgata de Reyes de Ansoain, queremos pedir ayuda a la ciudadanía de la localidad para preparar la Cabalgata de Reyes. Sí sabes usar un taladro, destornillador, coser, pintar....serás bien recibido!!!!Basta con que nos dejes tu nombre, apellidos y número de teléfono en la página de la Cabalgata: cabalgataansoain@gmail.com.

ANIMATE, TE ESPERAMOS. **Muchas gracias. Eskerrik asko**

IPUIN-KONTALARIA (euskaraz) - CUENTA CUENTOS (en euskera)

ASTEAZKENA **20** MIÉRCOLESLiburutegia (HAURRENTZAT BAIZIK EZ)
Biblioteca (EXCLUSIVAMENTE PARA NIÑOS/AS)

"ITSASOAREN HOTSA" BIRJIÑE ALBIRA

**DOAKO SARRERA
ENTRADA LIBRE**17:30ean, 3 eta 5 urte bitartekoentzat
18:15ean, 6 eta 12 urte bitartekoentzat17:30 De 3 a 5 años
18:15 De 6 a 12 añosOSTEGUNA **21** JUEVESSociedad Arrikulunka · 17.00 - 20.00
Arrikulunka Elkarte · 17.00 - 20.00

NAVARRA-BULGARIA

12 eta 30 urte bitarteko gazteentzat - Personas jóvenes de 12 a 30 años de edad

**TALLER DE COCINA PARA JÓVENES**

Izena emateko epea: Azaroaren 27tik abenduaren 15a arte, Harrobi Gaztelekuan.

Tailer honen bitartez sukaldean ariko dira, osasuntsu bazkaldu, lan-taldean aritu, berdintasun erlazioak sortu eta arduren berdintasunezko banaketa bezalako gaitasunak eskainiko zaizkio gazteriarri. Bertan, Javier Bergararen eskutik hainbat plater prestatuko dira. Topaketa une bat izango da gaur egungo ekintzez deskonektatzeko, lan egiteko, hitz egiteko eta erlaxatzen garen bitartean elkar ezagutzeko"

TALLER DE COCINA PARA JÓVENES

Plazo de inscripción: del 27 de noviembre al 15 de diciembre en la Casa de Juventud Harrobi.

Se trata de un taller en el que se facilitarán herramientas a la población juvenil para que aprendan a cocinar, a comer sano, a trabajar en equipo, crear relaciones de igualdad y un reparto igualitario de las responsabilidades. En él se elaborarán varios platos de la mano de Javier Bergara. Será un momento de encuentro, un espacio de desconexión de las actividades cotidianas, un lugar de trabajo pero también de ocio y relaxo, un lugar donde charlar y conocernos.

OSTIRALA **22** VIERNESFrontoian · 17:00etan
Frontón · 17:00 h.**DOAKO SARRERA
ENTRADA LIBRE****HAUR ANIMAZIOA ETA TXOKOLATE JANA EZKABA IKASTETXEAN
ANIMACIÓN INFANTIL Y CHOCOLATADA COLEGIO EZKABA**

Familientzat - Familiar

SARREREN SALMENTA VENTA DE ENTRADAS

ANTZOKIKO LEIHATILAN. Ikuskizunaren hasiera baino ordu eta erdi lehenago hasita ■ TAQUILLA DEL TEATRO. Desde una hora y media antes del comienzo de cada espectáculo.

012 TELEFONOAN (Nafarroatik kanpo 948 012 012). Sarrerak hartzen dira ikuskizun bakoitzaren hasiera baino ordu eta erdi lehenago hasita ■ TELEFONO 012 (Desde fuera de Navarra 948 012 012). Las entradas se recogen en la taquilla del teatro desde una hora y media antes del comienzo de cada espectáculo.

INTERNET · www.ansoain.es SARREREN SALMENTA. Internet bidez egindako erosketaren egiaztagiria ekartzen baduzu, zuzenean aretora pasa zaitez ■ INTERNET · www.ansoain.es VENTA DE ENTRADAS. Con el justificante de compra por internet pasa directamente a la sala.

MUSIKA - MÚSICA

OSTIRALA **22** VIERNESTeatro Ansoáin · 18:00 h. (120 minutos)
Antsoaingo Antzokia · 18:00etan (120 minutu)CORAL JUBILADOS EZKABA, CORAL SAN JOSE, GRUPO TAMARINDO, CORAL SAN PEDRO
(NAFARROA - NAVARRA)

Familientzat - Familiar



PREZIOA / PRECIO 4,00 €

ANTSOAINGO CARITASEN ALDEKO KONTZERTUA

Herriko bizilagun behartsuenen alde lanean ari den CARITAS ANSOAIN taldearentzako dirua biltzeko helburuarekin antolatu du kontzertu hau Antsoaingo Ezkaba jubilatuen elkarteak, talde hauen laguntzarekin: CORAL JUBILADOS EZKABA - CORAL SAN JORGE - GRUPO TAMARINDO - CORAL SAN PEDRO.

CONCIERTO BENÉFICO A FAVOR DE CÁRITAS ANSOAIN

Con el fin de recaudar fondos para CARITAS ANSOAIN, que lleva tantos años trabajando para ayudar a personas necesitadas de nuestro pueblo, la Asociación de Jubilados y Jubiladas Ezkaba de Ansoáin quiere celebrar este concierto benéfico con las actuaciones de: CORAL JUBILADOS EZKABA - CORAL SAN JORGE - GRUPO TAMARINDO - CORAL SAN PEDRO.

IGANDEA **24**
DOMINGOIngurabideko zubia (igerilekuen ondoan) · 18:30ean
Puente variante (junto a las piscinas) · 18:30 h.

Familientzat - Familiar

**ONGIETORRIA OLENTZERORI**

Gabon gauean, pertsonaia bitxi bat jendartean sartuko da. OLENTZERO da, urtean behin mendietatik Euskal Herriko herrietara EGUBERRIAK ospatzera jaisten den ikazkina. Hainbat herritan, aurpegia belzturik tximiniatik jaisten zen begi gorriko eta itxura zatarreko erraldoia zen Olentzero; eta haur bihurriak izutzeko erabiltzen zen Olentzeroren pertsonaia. Gaur, berriz, haurrek lagun zintotzat hartzen dute Olentzero, eta lagun goxo horrek haurrak maite ditu, eta opariak ekartzen dizkie Gabon gauean.

BIENVENIDA AL OLENTZERO

En la noche de Nochebuena un curioso personaje se dispone a irrumpir entre la gente. Se trata de OLENTZERO, el carbonero de las montañas que una vez al año baja a las poblaciones de Euskal Herria para celebrar la NAVIDAD. Olentzero era en muchos pueblos un gigante que bajaba de la chimenea con la cara tiznada, los ojos rojos y el aspecto fiero. Con él se amenazaba a los niños travessos. Hoy, los pequeños le consideran bueno, amigo de los niños a los que quiere y trae regalos en la noche de Nochebuena.

HAURENTZAKO ANTZERKIA EUSKARAZ - TEATRO INFANTIL EUSKERA

ASTEARTEA **26** MARTESAntsoaingo Antzokia · 18:00etan (55 minutu)
Teatro Ansoáin · 18:00 h. (55 minutos)

PRODUCCIONES MAESTRAS (IRUÑA - PAMPLONA)

5 urte eta 9 urte bitartekoentzat - De 5 a 9 años

PREZIOA / PRECIO
3,80 €**MARTINAREN PARKE FANTASTIKOA**

Martina arratsaldero bere parkera jolastera joaten da. Bere parkea munduko onena da, eta ez soilik mundukoa... baita unibertso osokoa ere! Bere parkean lagunekin jolasten du, uxo eta harriekin, eta jolasteari beldurrik ez dioten pertsona helduekin. Bere parkean, mundu berriak deskubrituko ditu, ausarta izatea zer den ikasiko du, baita beldurra izatea zer den ere. Horrez gain, imaginazioak mugarik ez duela ikusiko du. Bere parkean, abentura sinergaitzak biziko ditu. Abentura txikiak eta abentura handiak, bakarrik edo lagunduta, bizitza bera baita abenturarik zirraragarriena. Martinak bere parke fantastikoan arratsalde batean gerta daitekeen guztia erakutsiko digu. Ezagutu nahi al duzu?

EL FANTÁSTICO PARQUE DE MARTINA

Martina va todas las tardes a jugar a su parque. Su parque es el mejor del mundo, y no solo del mundo, ... ¡del universo! En su parque juega con sus amigos y amigas, con palomas y piedras, con las personas mayores que no tienen miedo a jugar. En su parque descubre nuevos mundos, descubre qué significa ser valiente y qué tener miedo. Y también descubre que no hay límites en su imaginación. En su parque vive increíbles aventuras. Aventuras pequeñas y grandes aventuras, sola o acompañada, porque vivir es la más apasionante de las aventuras. Martina nos enseña todo lo que puede ocurrir durante una tarde en su fantástico parque. ¿Te animas a conocerlo?

idaki

Haurrak uretara Bebés al'agua

6 ETA 24 HILABETE BITARTEKO
HAURREI ZUZENDUTAKO
UR-ESTIMULAZIO PROGRAMA

2018an zuen hurrekin uretara salto egiteko proposamena egiten dizuegu, inork kenduko ez dizuen esperientziaz gozatu ahal izateko. Igeriketa ikastaro bat baino gehiago da; jarduera horri esker, haurren eta gurasoen artean izugarritzko harreman positiboa eratzen baita. **Uraz gozatu, grabitaterik eza sentitu, gurasoekin lotura bat sortu.**

PROGRAMA DE ESTIMULACIÓN
ACUÁTICA PARA BEBÉS
DE 6 A 24 MESES

Os proponemos para este próximo 2018 zambulliros con vuestros bebés en el medio acuático, disfrutar de una experiencia que nadie os podrá quitar en vuestra vida. Mucho más allá que un cursillo de natación, puesto que, durante la actividad, se establece con ellos una intensísima relación positiva. **Disfrutar del agua, sentir la ingravidez, contactar con padre o madre.**

*Ostiraletan,
16,30etik aurrera*

*Viernes a partir
de las 16,30 h.*

IKASTAROAREN DATA

*Urtarrilaren 12tik (ostirala) apirilera arte,
12 saio.*

FECHAS DEL CURSILLO

*Del viernes día 12 de enero al mes de abril
(12 sesiones)*

Informazio gehiago udal webgunean edo
948 14 07 82 telefono-zenbakira deituta
Solicita más información en la web
municipal o llama al 948 140 782

*Bazkideak / Personas abonadas 55€
Bazkide Ez Direnak / Personas no abonadas 75€
Erroldatu Gabekoak / Personas no empadronadas 80€*



AYUNTAMIENTO
DE ANSOÁIN
ANTSOAINGO UDALA

